



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2008IPLE0011

**Eguna:** 2008-11-27

**Ordua:** 12:05 – 13:30

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	EA
- Juan Joxe Uranga Mendiburu	EA
- Imanol Lizarralde Marín	EA
- Eloy Bazan Bazan	EA
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ/PNV
- M <sup>a</sup> Jesús Arruabarrena Izagirre	EAJ/PNV
- Jesús Fontal García	EAJ/PNV
- Carlos de la Peña Hornés	EB-B
- David Franco Chavale	EB-B
- Jose Angel Sanchez Gallardo	PSE-EE
- Jose Manuel Herzog de Bustos	PP

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N <sup>o</sup>	ORDEN DEL DIA
2008ko irailaren 17ko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta de 30 de octubre de 2008
Euskara, hezkuntza eta gazteria batzordeak eginiko proposamena	2	Propuesta realizada por la comisión de Euskara, educación y juventud
1176/2008 Dekretua berrestea	3	Ratificación del Decreto 1176/2008
Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko Udal Ordenantza arautzailea. Hasierako onarpena	4	Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores. Aprobación inicial
Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa	5	Ordenanza municipal reguladora de la convivencia ciudadana y del uso y limpieza



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

<b>arautzen duen udal ordenantza. Behin betiko onarpena</b>		de la vía pública. Aprobación definitiva
<b>Eginiko Dekretuen berri eman</b>	<b>6</b>	Dar cuenta de los Decretos realizados
<b>EAJ-PNV taldeak aurkezturiko mozioa, pentsioen osagarriaren aldekoa</b>	<b>7</b>	Moción presentada por EAJ-PNV. Defensa del complemento de pensiones
<b>Informazioa eta galde-eskeak</b>	<b>8</b>	Información, ruegos y preguntas

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1. 2008ko urriaren 30eko aktaren onarpena

2008ko urriaren 30eko akta onartu da eta honako zehaztapen hauek egin dira:

- Jesús Fontalek 9.1 puntuari dagokionez adierazi du Gobernu Taldearen ordezkariak "Gobernu Batzordea" adierazi behar dela.
- Jose Ángel Sanchezek adierazi du 4. puntuari dagokionez honako hau erantsen proposatzen duela: "alkateak 2009. urtean aurrekontu-partida bat esleitzeko konpromisoa hartu zuen zerga-hobariak eragindako diru-laguntzei erantzuteko; haien kudeaketa zerga-ordenantzen testu bateginean aldatu da.

Aurreko zehaztapenekin akta aho batez onartu da.

#### 1. Aprobación del acta de 30 de octubre de 2008

Se somete a aprobación el acta de fecha 30 de octubre de 2008 formulándose las siguientes matizaciones:

- Jesús Fontal al punto 9.1, indicando que en lugar de Equipo de Gobierno debe indicarse "Junta de Gobierno".
- Jose Ángel Sanchez indica que en relación al punto 4 propone añadir "Que el alcalde se comprometió a dotar de una partida presupuestaria en el 2009 para atender las subvenciones derivadas por las bonificaciones fiscales, cuya gestión ha sido modificada en el texto refundido de ordenanzas fiscales.

Con las matizaciones precitadas se aprueba el acta por unanimidad.

#### 2. Euskara, hezkuntza eta gazteria batzordeak eginiko proposamena

#### 2. Propuesta realizada por la comisión de euskara, educación y juventud



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Euskara, hezkuntza eta gazteria Se somete para su aprobación el batzordearen irizpena onartzeko utzi da dictamen de la comisión de Euskera, eta honako erabakia hartzeko Educación y Juventud, proponiendo la proposamena egin da: adopción del siguiente acuerdo:

- Astigarragarentzat zer-nolako abantaila izango lukeen derrigorrezko hezkuntza guztia Astigarragan bertan egiteko aukera izateak.
- Astigarragan nahikoa ikasle badela derrigorrezko hezkuntza guztia in situ emateko.
- Plan Orokorrean lurra gordetzea aintzat hartu dela hezkuntza-zuzkidura batentzat.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari eskatzea Astigarragan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren irakaskuntza eskaintzeko.
- La ventaja que supondría para Astigarraga el que hubiera la posibilidad de realizar toda la enseñanza obligatoria en Astigarraga mismo.
- Que en Astigarraga hay suficientes alumnos para que toda la enseñanza obligatoria se imparta in situ.
- Que en el Plan General se ha contemplado una reserva de suelo para una dotación de carácter educativo.
- Solicitar al departamento de Educación del Gobierno Vasco que se oferte en Astigarraga la enseñanza de la Educación Secundaria Obligatoria.

Proposamena bozkatu ondoren, aho Sometida a votación la propuesta es batez onartu da. aprobada por unanimidad.

Bozketaren azalpenean, honako hauek Dentro la de explicación de voto se dan adierazi dira: las siguientes:

- Carlos de la Peña: Asmo-adierazpen gisa, egokia iruditzen zaio, baina planeamenduaren arloan, hutsune handiak daude, ez dago partidarik Bidebitarte birkokatze eta abar.....
- Jose Angel Sanchezek adierazi du baieztoko botoa eman duela Eusko Jaurlaritzari Astigarragan bigarren hezkuntza egon dadin eskatzeko.
- Zorione Etxezarraga: Udalak bere gain hartu du Ikastolaren irizpidea eta Ikastolak erabaki bezala egin du proposamena eta
- Carlos de la Peña: Como declaración de intenciones le parece adecuado, pero en materia de planeamiento hay muchos vacíos, partida inexistente para reubicación de Bidebitarte, etc.....
- Jose Angel Sanchez, señala que ha dado el voto positivo para realizar la solicitud al Gobierno Vasco para que la educación secundaria llegue a Astigarraga.
- Zorione Etxezarraga: El Ayuntamiento ha asumido el criterio de la Ikastola y ha formulado la propuesta en los



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Eusko Jaurlaritzari onartzeko proposatu dio.

mismos términos que los acordados por la Ikastola proponiendo al Gobierno Vasco su aprobación.

Eztabaida sortu da eta Joxi Urangak adierazi du ez dela egia Plan Orokorrean lurra gordeta dagoenik eta gai horri buruzko idazki bat irakurri du.

Se sucede un debate y participa el vecino Joxi Uranga señalando que no es cierto que exista reserva de suelo en el Plan General y da lectura a un escrito relativo a esta materia.

### 3. 1176/2008 Dekretua berrestea

### 3. Ratificación del Decreto 1176/2008

Alkateak kulturako eta jaietako arloaren berrantolaketari buruzko 1176/2008 Dekretua aurkeztu du eta kiroletako zuzendaritza bereizi du; zuzendaritza hori Imanol Lizarralde Marínek zuzenduko du eta kulturako eta jaietako arloa Zorione Etxezarragak zuzendutako batzordean geratuko da.

El Alcalde presenta el decreto 1176/2008 relativo a la reorganización del Área de cultura y deportes, separando la presidencia de deportes que quedará presidida por Imanol Lizarralde Marín, y quedando del área de cultura y fiestas dentro de la comisión presidida por Zorione Etxezarraga.

Dekretuaren testuan Maria Jesús Arruabarrenaren abizenaren aldaketa adierazten da.

Se reseña la modificación del apellido de Maria Jesús Arruabarrena, en el texto del Decreto.

Adierazitako dekretuaren berrestea bozkatu eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

Se somete a votación la ratificación del decreto precitado produciéndose el siguiente resultado:

ALDEKO BOTOAK	9 EA, EAJ-PNV eta EB-B.
ABSTENTZIOA	2 PSE-EE eta PP.
AURKA	0

VOTOS A FAVOR	9 EA, EAJ-PNV Y EB-B
ABSTENCIÓN	2 PSE-EE Y PP
EN CONTRA	0

Proposamena onartu egin da.

La propuesta queda aprobada.

Botoaren azalpena:

- Carlos de la Peñak adierazi du eskasak iruditzen zaizkiola Imanol Lizarralderi atxikitako eginkizunak 25. maila baitauka finkatua eta haren eginkizunak

Explicación de voto:

- Carlos de la Peña indica que le parecen escasas las funciones adscritas a Imanol Lizarralde, dado que tiene fijado un nivel 25



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

- zeintzuk diren jakin nahi du.
- Imanol Lizarralde: Kiroldedia Udalaren zerbitzu garrantzitsuenetako bat da eta arlo horrek garrantzi handia dauka; Carlosen arabera maila hori ez duela eduki behar uste izatea, horixe da, ustea, Carlosen iritzia.
  - Jose Angel Sanchez: adierazi du suposatzen duela alkatetzaren idazkari-eginkizunak ere atxiki dizkiotela, bestela, eztabaidatzeko modukoa izango bailitzateke. Erantsi du nahi duena kirolaren erantzukizuna Udalaren esku egotea dela eta arlo hori Udalari atxikita egotea eta ez Astigarraga Lantzen enpresari.

Jose Manuel Herzogek adierazi du uste duela Imanol Lizarralde behar bezala kudeatuko duela arloa.

y quisiera saber cuales son sus funciones.

- Imanol Lizarralde: El polideportivo es uno de los servicios más importantes del Ayuntamiento y tiene mucha importancia esa área y que Carlos no considere que tiene que tener ese nivel es una opinión.
- Jose Angel Sanchez: Señala que supone que también tiene adscrita las funciones de secretaría de alcaldía por que sino si sería discutible. Añade que lo que desea es que la responsabilidad del deporte se lleve desde el Ayuntamiento y que esta área este adscrita al Ayuntamiento y no a Astigarraga Lantzen.
- Jose Manuel Herzog, señala que presume que Imanol Lizarralde gestionará adecuadamente el área.

#### **4. Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko Udala Ordenantza arautzailea. Hasierako onarpena**

Alkatetzak bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal-ordenantza arautzailearen hasierako onepeneri buruzko Obra eta Zerbitzuen Batzordearen irizpena aurkeztu du eta honako erabaki hauek hartzea erabaki da:

1. Hasierako onepena ematea bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantza arautzaileari.
2. Ordenantzaren testua jendaurrean ikusgai jartzea, 30 laneguneko epean; eta horretarako,

#### **4. Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores. Aprobación inicial**

Alcaldía presenta el dictamen de la comisión de Obras y Servicios relativo a la aprobación inicial de la ordenanza municipal reguladora de la Instalación, en la Vía Pública de Terrazas y Veladores, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Aprobar inicialmente la Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores.
2. Someter el texto a información



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, prentsan eta iragarkien udal tauletan argitaratzea.

3. Jendaurrean ikusgai dagoen bitartean erreklamazioak jaso ezean, Ordenantza behin betiko onartuzat joko da, Udalbatza osoak berriro erabaki beharrik gabe. Hori horrela, ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei kopia bana bidaliko zaie.

pública, durante el plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en prensa y en el tablón de anuncios municipales.

3. Transcurrido el período de exposición pública sin haberse producido reclamaciones, la ordenanza se entenderá definitivamente aprobada sin requerirse nuevo acuerdo plenario y publicándose el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y remitiéndose una copia a la Administración del Estado y de la Comunidad Autónoma Vasca.

Proposamena bozkatu eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK	9 EA, EAJ-PNV, PSE-EE, PP.
ABSTENTZIOA.	0
AURKA	2 EB-B

Sometida a votación la propuesta se produce el siguiente resultado:

VOTOS A FAVOR	9 EA, EAJ-PNV PSE-EE, PP
ABSTENCIÓN	0
EN CONTRA	2 EB-B

Proposamena onartu egin da.

La propuesta queda aprobada.

Botoaren azalpena:

Explicación de voto:

- EAKo zinegotzi Eloy Bazanek adierazi du bere batzordearen presidentetzan lan egin dutela ordenantza hori ahalik eta lankidetzan handienarekin idazteko.
- PSE-EEko zinegotziak eskerrak eman dizkio Eloyri obra eta zerbitzuen batzordean parte-hartze zabala egoteko aukera eskaintzeagatik (horrek ordenantza hori onartzeko aukera ekarri du) eta erantsi du hori betetzea nola kontrolatu behar
- El concejal de EA, Eloy Bazan señala que desde la presidencia de su comisión se ha operado para redactar esta ordenanza con el máximo de colaboración.
- El concejal del PSE-EE agradece a Eloy por haber permitido una amplia participación en la comisión de Obras y Servicios que ha permitido culminar con al aprobación de esta ordenanza, y añade que el asunto está en determinar en como se controla su cumplimiento.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

- den zehaztu behar dela.
- PPko zinegotziak ere Eloy Bazani zorionak eman dizkio lan horretan denek hitz egin baitute, denek ekarpenak egin baitituzte eta nola egin behar den jakiteko adibide bat da.
  - El concejal de PP felicita también a Eloy Bazan dado que en esta elaboración todos han hablado, han aportado y es un ejemplo de cómo se debe hacer.
  - EB-Bko zinegotziak (Carlos de la Peña) adierazi du aurka bozkatu duela ez zegoelako ados jasotzen diren ixteko ordutegiekin; izan ere, ez da kontsultarik egin udalerriko elkarteekin...
  - El concejal de EB-B (Carlos de la Peña), señala que ha votado en contra por que no estaba de acuerdo con los horarios de cierre que se recogen, por que no se ha consultado con asociaciones del municipio...

### **5. Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantza. Behin betiko onarpena**

### **5. Ordenanza municipal reguladora de la convivencia ciudadana y del uso y limpieza de la vía pública. Aprobación definitiva**

Alkatetzak herritarren arteko bizikidetzaren udal-ordenantza arautzailearen hasierako onespenerari buruzko Obra eta Zerbitzuen batzordearen irizpena aurkeztu du eta honako erabakia hartzeko proposamena egin:

Alcaldía presenta el dictamen de la comisión de Obras y Servicios relativo a la aprobación definitiva de la ordenanza municipal reguladora de la convivencia ciudadana, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

1. Behin-betiko onespenera ematea herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantzari, hau bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei kopia bana bidaliz.
1. Aprobar definitivamente la Ordenanza municipal reguladora de la convivencia ciudadana y del uso y limpieza de la vía pública, publicándose el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y remitiéndose una copia a la Administración del Estado y de la Comunidad Autónoma Vasca.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du 5.2 artikuluari aldaketa bat egitea proposatzen dela eta bertan honako hau kendu behar dela: “ modu ausartegian edo oinezkoentzat arriskua

Interviene al Alcalde indicando que se propone un cambio al art 5.2 donde debe de excluirse: “ de forma temeraria u ocasionando peligro para los peatones”, añadiéndose “ de vehículos



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

eragiten” eta “ibilgailutik motorrera” a motor”.  
adieraztea.

Aldaketa horrekin proposamena bozkatu eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK	9 EA, EAJ-PNV, PSE-EE, PP.
ABSTENTZIOA.	2 EB-B
AURKA	0

Con la incorporación de esta modificación se sometida a votación la propuesta se produce el siguiente resultado:

VOTOS A FAVOR	9 EA, EAJ-PNV PSE-EE, PP
ABSTENCIÓN	2 EB-B
EN CONTRA	0

Proposamena onartu egin da.

La propuesta queda aprobada.

Botoaren azalpena:

Explicación de voto:

- PSE-EEko zinegotziak kontrolatzeko baliabideak jartzeko eskatu du.
- Eloy Bazanek adierazi du ordenantzaren abantaila herritarrek parte hartzeaz gain, kontrol-lanaren egokitasuna zain dezaketela dela.
- Carlos de la Peña zinegotziak adierazi du abstentzioaren arrazoia egindako aholkularitzaren jatorria dela; izan ere, ez du beharrezkotzat jotzen aholkularitza hori.

- El concejal del PSE-EE reseña que se pongan medios para su control.
- Eloy Bazan señala que la ventaja de la ordenanza reside en que los propios ciudadanos además de ser participes pueden velar por el control.
- El concejal Carlos de la Peña señala que la causa de la abstención está causada por el origen de la asesoría realizada, entendiéndose innecesaria esa asesoría.

### **6. Eginiko Dekretuen berri eman**

Udaleko organo betearazleek bidalitako dekretuen berri eman da, 1001.etik 1070.era arte eta zinegotzien eskura dago Udal Idazkaritzan.

### **6. Dar cuenta de los Decretos realizados**

Se da cuenta de los decretos emitidos por los órganos ejecutivos del Ayuntamiento, del 1001 al 1070, quedando a disposición de los concejales en la Secretaría Municipal.

### **7. EAJ-PNV taldeak aurkezturiko mozioa, pentsioen osagarriaren aldekoa**

### **7. Moción presentada por EAJ-PNV. Defensa del complemento de pensiones**





## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Zorione Etxezarragak pentsioen osagarria babesteko asmoz aurkeztutako mozioa irakurri da eta honako erabaki hauek hartzeko proposamena egin da:

Se da lectura a la Moción presentada por Zorione Etxezarraga en relación a la defensa del complemento de pensiones, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Astigarragako Udalak Espainiar Gobernuari eskatzen dio Diputatuen Kongresuan eskatutako kopurura arte igo ditzala pentsiorik baxuenak.
  2. Astigarragako Udalak Espainiar Gobernuari eskatzen dio, pentsioak igotzeko konpromisoa betetzen ez duen bitartean, errespetatzea dezala gizarte laguntzan dugun eskumen esparrua, gure instituzioek gutxienez pentsio hauek osatzeko modua izan dezaten.
  3. Astigarragako Udalak bere herritar guztiei gogorarazi nahi die pentsio baxuenen osagarria hartzeko eskubidea dutela, eta Udalera hurbiltzeko gomendioa luzatzen die, informazio zabalagoa izan dezaten eta osagarri hau alaitan arinen tramita dezaten.
1. El Ayuntamiento de Astigarraga insta al Gobierno español a elevar y dignificar las pensiones más bajas en la cuantía reclamada en el Congreso de los Diputados.
  2. El Ayuntamiento de Astigarraga insta al Gobierno español a que, en tanto no cumpla con el compromiso de elevar las pensiones, respete el ámbito competencial vasco de asistencia social, para que, al menos, nuestras instituciones puedan complementar estas pensiones.
  3. El Ayuntamiento de Astigarraga recuerda a sus vecinos y vecinas su derecho a percibir el complemento de las pensiones más bajas, y les anima a acercarse al Ayuntamiento para ampliar información y tramitar cuanto antes dicho complemento.

Mozioa bozkatu eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

Se somete la moción a votación produciéndose el siguiente resultado:

ALDEKO BOTOAK	7 (EAK 4), (EAJ-PNVk 3).
ABSTENTZIOA.	2 EB-B
AURKA	2 PSE-EE, PP.

VOTOS A FAVOR	7 (EA 4), (EAJ-PNV 3)
ABSTENCIÓN	2 EB-B
EN CONTRA	2 PSE-EE, PP

Mozioa onartu egin da.

La moción queda aprobada.

Eztabaida sortu da eta PSE-EEko zinegotziak adierazi du horrelako planteamenduak Andaluziako gobernu Se suscita un debate señalando el concejal del PSE-EE que este tipo de planteamientos ya fueron inicialmente



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

sozialistak planteatu zituela eta Konstituzio Auzitegiak baliogabetu egin zuela eskumen-arazoa zela-eta; beraz, Eusko Jaurlaritzak mozio hori onartu badu, ez egikaritzearen arazoa Eusko Jaurlaritzarena da eta ez Estatuarena.

Zorione Etxezarragak adierazi du aurkaratzerik ez badago ere, Eusko Jaurlaritzara bidalitako gutunak daudela eskumena zalantzan jarriz.

Carlos de la Peña zinegotziak adierazi du ez dagoela ados sartzearekin, baina ados dagoela hartutako puntuekin.

Azkenik, PPko zinegotziak adierazi du bi jarrerak, mozioa nahiz aldekoa manikeoak direla.

planteados por el gobierno socialista de Andalucía y que fue anulado por el Tribunal Constitucional por problema competencial, de modo que si el Parlamento Vasco ha aprobado esta moción el problema de no ejecutarlo es del Gobierno Vasco y no del Estado.

Zorione Etxezarraga manifiesta que aunque no exista impugnación existen cartas remitidas al Gobierno Vasco cuestionando la competencia.

El concejal Carlos de la Peña ha manifestado que no está de acuerdo con la introducción si bien está de acuerdo con los puntos adoptados.

Finalmente el concejal del PP señala que las dos posturas tanto la moción como su defensa es maniquea.

### **8. Informazioa eta galde-eskeak**

8.1.- Alkateak gogorarazi du jarraian kontratazio-mahaia egongo dela.

8.2.- Alkateak langileen batzordearen presidenteari deialdia prestatzeko eskatu dio laster Udalhitzi lotzeko proposamena eztabaidatzeko.

8.3.- Carlos de la Peñak honako galdera hauek egin ditu:

- Juan Joxe Urangari: EMISARI dagozkion obren jarraipen-protokoloa.
- Alkatetzari Haren ekimenaren (Sagardoaren Museorako bisitaldiak diruz laguntzeko) eta Txotxaren galdesorten egoeraren berri eman dio.

### **8. Información, ruegos y preguntas**

8.1.- El alcalde recuerda que a continuación habrá mesa de contratación

8.2.- El alcalde solicita al presidente de la comisión de personal que prepare la convocatoria para que próximamente se pueda debatir la propuesta de adhesión al Udalhitzi.

8.3.- Carlos de la Peña formula las siguientes preguntas:

- A Juan Joxe Uranga: Protocolo de seguimiento de obras, bajo de EMISA
- A alcaldía: Le da cuenta de su iniciativa para subvencionar visitas al Museo de la Sidra, y estado de los cuestionarios del Txotx.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Juan Joxek haren galderak hurrengo hirigintza-batzordean erantzungo direla erantzun du. Contesta Juan Joxe, que sus preguntas serán contestadas en la siguiente comisión de urbanismo.

Bixentek hurrengo osoko bilkuran erantzungo dela erantzun du. Contesta Bixente que se contestará en el próximo pleno.

8.4.- Berriz ere Ikastola handitzeari buruzko galderak egin dira eta eztabaida zabala sortu da; Alkateak adierazi du gurasoen batzordea Ikastolaren gaia erabiltzen ari dela, eta batez ere ANV ari dela gai hori erabiltzen, eta gogorarazi du Alkatetza eta gobernu-taldea lanean ari direla eta urrats sendoak egiten ari direla ikastola handitzeko arazoa eta haren etorkizuna konpontzeko. 8.4.- Se formula nuevamente preguntas relativas al desarrollo de la ampliación de la Ikastola desarrollándose un amplio debate que concluye el Alcalde que el tema de la Ikastola está siendo utilizado por la comisión de padres y sobre todo ANV, y recuerda que la Alcaldía y el equipo de gobierno están trabajando y dando pasos firmes para solucionar el problema de la ampliación de la Ikastola y su futuro.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2008ko azaroaren 28an

**Xabin Olaizola Lasa**  
**idazkari kontu-hartzailea**